

 **91.10.** Lazkao Txiki

Lazkaomendiko Abaliñe baserrian jaio zen Joxe Migel Iztueta Kortajarena, 1926an. Ataundar batek jarri omen zion Lazkao Txiki goitizena, eta heldutan ere, ume garaian izan ohi den jakin-mina gordetzen zuela gogoan dute ezagutu zutenek.

Ikasle saiatua izan zen eskola-garaian, eta langilea etxean, baserrian laguntzen. Soldaduskara joan zen gero, eta itzuli zenean, 23 urterekin, igeltsero aritu zen. Ordurako, ordea, bazebilen bertsoan: izan ere, 17 urterekin egin zuen bere lehen plaza, Legorretan.

Zaleen zein bertsolarien artean estimatua eta maitatua izan da Lazkao Txiki. Beste inori bururatzen ez zitzaizkion ideiak bururatzen zitzaizkion. Hainbat txapelketatan aritu izan zen lehian, eta Gipuzkoako txapeldun izan zen 64an. Hurrengo urtean, berriaz, txapeldun orde izan zen Euskal Herrikoan, eta bi urte geroago lehiatu zen bere azken txapelketan. Haren bertso ezagunenetako bat ispiluari kantatutako hau:

“Aizak nik hiri bota behar dit
bertso koskor bat edo bi
bebingoan jarri geran ezker
biok aurpegiz aurpegi
neri begira hortik daduzkak
alperrikako bi begi
hik ez nauk noski ni ikusiko
baina nik ikusten haut hi”.

Ondorengo belaunaldietara iritsi da Lazkao Txikiren arrastoa, besteak beste, marrazki bizidunen bidez. Txikiaren handitasunak presente jarraitzen du.